

ROBERTO LOPEZ DE ETXEZARRETA ▶ PASAIAKO ALKATE OHIA ETA MUGEN BATZORDEKO KIDEA

# «Elorza banintz, Pasaiako Udalarekin harremanetan jarriko nintzateke berehala»

Pasaiako Udalak Donostiarekin dituen mugak aztertzeke batzordea osatu du, eta bertako kide da Lopez de Etxezarreta; duela 200 urteko mugak eskatzea justiziazkoa dela dio

## AITZIBER IARTZA

Pasaiako Udalak Batzordea osatu du mugen auzia aztertzeke. Ez dago ados egungo mugekin eta Donostiak beretzat duen eremu zabal bat Pasaiarena dela dio. Batzordekide da Roberto Lopez de Etxezarreta, eta berarekin aritu gara.


**Pasaiaren 200. urteurrena dela eta, batzorde berezia osatu duzue Pasaiako mugak zehazteko. Nondik dator batzorde hori eratzeke idela?**

Pasaiako Udalean beti pentsatu izan dugu Pasaiako mugak izugarri murriztuta zeudela. Biztanle dentsitate handia du Pasaiak, baina gune fisiko oso murrizta. Beti uste izan dugu Pasaiarekin muga duten herriak, bereziki Donostia, Pasaiaren gainera zetozela. Alegia, Pasaiari zegozkion lurak hartzen zihoazela. Historia liburua kontsultatuta, ikusi genuen hortik etor zitekeela mugen buruzko argi apur bat.

**Vargas Poncek duela 200 urte aipatutako mugak hartu dituzue oinarri. Zergatik?**

Pasai Donibane Hondarribitik banandu zen 1770ean. Gero, 1805ean, borroka askoren ondoren, Pasai San Pedro Donostiatik bereizi zen, eta beste Pasaiarekin bat egin zuen. Prozesu horretan izan zen pertsona garrantzitsu bat: Vargas Ponce. Erregeak bidali zuen hona, ikerketa egin eta zer gertatzen zen azal zezan. Idatzit bat egin zion erregeari eta bertan gomendatu zuen Pasaiak bat izatea. Alegia, portua bat izan behar zela esan zuen, baina noski, Pasaiak ezin zela soilik ura izan, eta portuaz gain, inguruko lurak ere Pasaiarenak zirela. Garai hartan, Herrera ez zen existitzen, Pasaiak Antxo ezta ere. dena ura zen. Beraz, haruntzagoko lurak Pasaiak zirela esan zuen.

Lehenengo ehun urteetan, 1900 arte, Pasaiako biztanleria ez zen hazi, oso biztanle gutxi ziren. Beraz, Vargasek inguruko lurak Pasaiarenak zirela esan zuen arren, pasaitarrak une horretan zutenarekin moldatu ziren eta ez zitoten gaiari garrantzia handirik eman. Birtartean, Donostia inguruko lurak hartzen joan zen.



AITZIBER IARTZA

## Zergatik diozu hori?

Donostiako Udala beti aritu da Pasai San Pedro hartu nahian. 1805ean San Pedro Donostiatik banandu zen. Baina, 1808an Jose Bonaparte Espainiako errege jarri zutenean, Donostiako agintariek Pasaiak eskatu zuten berriro. 1808tik 1813ra Pasai San Pedro Donostia izan zen. Donostiako agintari guztiak nahi izan dute Pasaiak bereganatu. Azken saioa 1948an izan zen. Donostiako Udalak Francorl eskatu zion Pasai Antxo eta San Pedro Donostian sartzea, portu eta guzti. Madrilen ezetz esan zuten. Donostiak Altxa jan zuen orduan, zabal-kunderako behar zuelako. **Zergatik une honetan halako kezka mugekin?**

Kezka beti existitu da. 1900-1920. urteetan Pasaiak garatzen hasi zen. Arrantzak gora egin zuen eta industriak ere bai. 60-70eko harmarkadetan Pasaiak 25.000 biztanle zituen. Baina, ondoren, arrantzaren eta industriaren krisia etorri ziren. Gaur egun 17.000 biztanle ere ez ditu Pasaiak. Jaitsiera ikaragarria da. Beraz, argi dago Pasaiak ez dela erakargarria eta jendeak alde egin duela. Pasaiak 20 urte baino gehiago daramatza garapena lortu ezinik. Itota sentitzen garela planteatu dugu mugen auzia. Ez dugu espazio fisikorik, eta birika hori behar dugu.

**Duela 200 urtetako mugen arabera, Bidebleta, Altxa eta Intxaurrondoko zati bat Pa-**

**saia lirateke. Bideragarria al da bertako biztanleei pasaitarrak direla esatea?**

Donostiako Udala Pasaiako lurak hartzen joan da. Horrek arazoa sortu du, orain bertako herritarrei pasaitarrak direla esaterakoan. Horrek tentsioa sor lezake, baina errealitatea da mugak baleztatuta daudela. Orain udalen arteko konponbidea lortu behar da. Eztabaidatu beharra dago, eta gaiari buruz akordioa lortu.

**Donostiatik begratuta, harri-garria da hori guztia Pasaiak dela esatea.**

Norbaitek uste badu Pasaiako Udalak planteatzen duena —alegia, mugak zehaztearena, anexoena— beste inon ez dela gertatzen, oso oker dabil. Eten-

gabe gertatzen da toki askotan. Inor ez da harritu behar Pasaiako Udalak gai hau mahai gainean jartzen duelako. Pasaiako Udalak uste du eskubi-dea duela, eta gaita aztertu behar dela. Konponbidea bilatzeko orduan, kontuan hartu behar da biztanleek pentsatzen dutena. Ez da gauza bera biztanlerik gabeko mendi baten inguruko liskarra eta biztanleak dituen zonale bati buruzkoa. Baina kontuan hartu behar da Pasaiak izugarriko lur eskasia duela, eta bizitza normala egin ahal izateko beharrezkoa du espazio fisikoa eta espazio hori Vargas Poncek onartu zion. Justiziazkoa da Pasaiari lurak ematea. Elkartasunaz hitz egiten da askotan, eta kasu honetan elkartasuna beharrezkoa da. Ez digute ezer oparitu behar, justiziaz dagokiguna eman behar digute.

**Gaita aztertzeke batzordean alderdi guztietako ordezkariak zaudete, salbuespenik gabe. Ez da oso ohikoa.**

Asko poztu nau alderdi guztiek aho batez eskaera honekin bat egin izana. Beste gai batzuetan ezadostasun politikoak daude, baina honetan adostasuna dago. Oso pozgarria izan da denak norabide berean ikustea. Uste dut Pasaiarekin mugak dituzten herriek ere hau ulertuko dutela.

**Izan al duzue Donostiako Udaleko ordezkariekin bilerrak?**

Harremanak baino, lehen kontaktuak izan ditugula uste dut. PSE-EE dago bai Pasaiak, bai Donostian, eta pentsatzen dut hitz egingo zutela gai honetaz. Hala ere, kontaktu ofizialak, negoziazio prozesu baten hasiera ez da oraindik eman. Orain hasiko da benetako negoziazioa. Hasiera horren arabera, ikusi dugu Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurritaren parte hartzea beharrezkoa ote den.

**Udalak ados jartzen ez badira, Foru Aldundiak al du azken hitza?**

Ikusi behar da. Foru legeak ezartzen du herriak bereizteko eta batzeko prozedura, baina honetan ere zuhurrak izan behar gara. Ez dut uste indar egoera batera iristeko bezain go-

gor jarriko direnik gauzak. Hala ere, Pasaiko Udalarri ate guztiak itxiko balizkiote, Pasaia, auzitara jo beharko luke, horretarako oinarri juridikoa baitu. Baina ez dut uste hori denik hasierako borondatea.

**Pasaia eta Donostia arteko lurretan hainbat proiektu egin nahi ditu Donostiako Udalak: Uliako Parkeko plana, Auditx Akular... Zein eragin izan dezake mugen auziak proiektu hauetan?**

Auditx Akular oso proiektu handi eta interesgarria da, baina uste dut, zuhurtziagatik, Donostiako Udalak ez lukeela Ulian egin duena egin behar. Uliako planean Pasaia hainbat lur hartu zituen eta gero epaitegiek plana gelditu dute. Ez luke berdin jokatu behar, bestela Pasaia Udalak defentsa juridikoa planteatzeko aukera luke. Uste dut Donostiako Udalak ezer egin aurretik Pasaia Udalarekin hitz egin beharko lukeela. Bien artean erabaki beharreko kontua da.

**Baina, badirudi, Auditx Akularri buruz Donostiako alderdiek akordioa berehala lortuko dutela, eta ez dirudi hori atzeratzeko asmoa dutenik.**

Zuhurrena lehenago Pasaia-ekin hitz egitea da. Ez naiz ezer aurreratzen ari, baina uste dut inork ez duela Uliako erreplikatzeari nahi. Ni Elorza banintz, ez nuke minutu bat ere galduko, eta Pasaia Udalarekin harremanetan jarriko nintzateke.

**Donostiako Udalak ez du publikoki gauza handirik esan, baina esaterako, Letamendiak apur bat gutxietsi egin du zuen eskaera.**

Jorge Letamendiak zaharkituta gaudela eta ez dakit zer gehiago esango duen, baina esan behar diot Letamendiari eta Donostiako Udaleko PSE-EEri Donostiako Udalak beti izan duela Pasaia jateko gogoia. Horrek jarraitzen du gaur egun ere. Hori da, hain zuzen, argitu beharrekoa eta orain arteko politika hori leheneratzea edo konpontzea ezinbestekoa da. Konponbide justua bilatu behar da, orain arteko Donostiako Udalaren ekintza politikari aurre egiteko.

**Hainbat altzatarrek Altza herria aldarrikatzen dute, eta hain zuzen zuek Pasaia jateko zuzen lurrak Altza direla diote. Nola konponduko duzue auzi hau?**

Jarrera ona baldin bada, hitz egingo dugu. Altzaren herri izaerak oinarri juridiko-historiko oso hurbila du. 40ko hamarkadan anexionatu zuten Altza Donostia. Hala ere, asko kostako zaiela uste dut. Nik ezagututako Altza, baserrien Altza zen, paradisuia. Gaur egungoa oso bestelakoa da.

## OINARRIA

«Justiziazkoa da Pasaia lurrak ematea; Duela 200 urte Vargasek ikusi zuen, eta gaur egun errealtatea bera da»

## ZERGATIA


«Pasaia izugarritzko lur eskasia du, eta bizitza normala egin ahal izateko beharrezkoa du espazio fisikoa»

## PROIEKTUAK

«Donostiako Udalak, Auditx Akularren ezer egin aurretik, Pasaia Udalarekin hitz egin beharko luke»

## ALTZA

«Altzatar gehienak Elorzaren ondoan egongo dira; Altza Donostia dela esanez, Altza herria, ez Pasaia»



AITZIBER IARTZA

Milaka lagun bizi dira bertan eta gainera, gehienak Espainiako hainbat tokitatik etorritakoak dira. Orain haur altzatarrek direla esatea... Bertako biztanleek ez dakite Altza zer den. Uste dut horiek Odon Elorzaren ondoan egongo direla; Altza Donostia dela esanez, ez Altza herria, ez Pasaia. Oso harro daude donostiar izateaz. Guk Udalarekin hitz egingo dugu, eta Altza independente izatea nahi dutenekin ere, baina argi dago, gure eztabaida Donostiako Udalarekin dela.

**Batzuek Pasaia hordagoa izan dela diote. Hala al da?**

Adituen ikerketaren interpretazioaren ondorio logikoa baino ez da Pasaia Udalaren eskae-

ra. Vargas Poncek ezarritakoa ikusita, ezin zen besterik espero. Batzuek maximalistak garela pentsa dezakete, duela 200 urteko errealtateak eta gaur egungoak ez dutelako antzik. Baina kontua da duela 200 urte Vargas ikusi zuela Pasaia lurrak behar zituela, eta gaur egun ere errealtatea hori da.

**Hala ere, jendea asko harritu da zuen eskaeraren berri izatean ezta?**

Egia da jendea harritu dela. Hala ere, ez dut sumatu Donostiaren halako defentsa indartsua. Ez dut sumatu jendeak gaia gaizki hartu duenik; nora-eza dago. Jendea informatzea izango da orain guk egin beharreko lanetako bat.

## ‘Betiko donostiarra’

Roberto Lopez de Etzezarretak hurbiletik ezagutzen du Pasaia-aren eta Donostiaren arteko mugen auzia, eta jaiolekuaz galdetuta, umorea ere ez zaiola falta argi utzi du: «Donostiakoa naiz betidanik», dio barrez. «Iparragirre kalean jaio nintzen, kale horrek gero Javier Markina izena hartu zuen, eta gaur egun Eskalan-tegi kalea da. Kale horrek bereizten omen ditu Donostia eta Pasaia. Gainera, ni Donostiako aldean jaio nintzen. Gogoan dut aitak askotan paper kon-tuak eta egitera Buenavistako

alkateordetza bidaltzen ninduela eta baita Altzara ere».

Geroago, ordea, Donostia bizitzera etorri zen. 1981ean etorri zen Erdialdera bizitzera eta geroztik bertan bizi da.

Lopez de Etzezarreta Pasaia-ko alkate izan zen 1983-1987 bitartean. EAJko ordezkari gisa izendatu zuten alkate, eta EAJ eta EAren arteko bereizketa gertatu zenean, EAren bat egin zuen. Ondorengo bi agintaldietan ere Pasaia-ko Zinegotzi izan zen. 1995ean utzi zion Pasaia-ko zinegotzi izateari. 4

AURTENGO TOUR-A  
MEDITERRANEOAN EDO  
KANARIAR IRLETAN  
AMAITUKO DA!!

**trOpela.net**  
WWW.TROPELA.NET



Barandiaran Lizaso  
R. Mendiburu eskola

Matrikulazioa uztailaren 6 arte.

**Batxilergoak.**

Goi mailako

**HEZIKETA ZIKLOAK.**

Manuel Lardizabal, 26 - 20.018 Donostia  
tel: 943-213355 - barand02@ikastola.net